

# GORLIZKO OSPITALEA



## 2010eko TXOSTENA

---

## Aurkibidea

---

- Aurkezpena.
- Gorlizko Ospitalea. Misioa, ikuspegia eta balioak.
- Zerbitzuen eskaintza.
- Asistentzia-prozesua.
- Emaizak gure bezeroekin. Gogobetetze-inkestak.
- Giza baliabideak.
- Datu ekonomikoak.
- Kostuen analisisa.
- Inbertsioak.

## Aurkezpena.



Memoria honetan talde oso baten lana islatu nahi dugu 2010eko ekitaldiko emaitzen bidez. Datuok esanguratsuenak dira, eta prozedura asistentzialari nahiz jarduera ekonomikoari dagozkie. Guztion konpromisoaz eta ahaleginez lortu ditugu emaitzok, uste dugularik ospitalea osasun-premiei egokituz doan etxe dinamiko bat dela.

Urtea proiektuz betea egon da, batzuk aurreko urteetan hasitakoak, beste batzuk aurten bertan abiatuak. Proiektu horien bidez aurrera egin nahi dugu ospitalea patologia azpi-akutuak dituzten pazienteen zentro gisa sendotzeko. Horrela, argiro ari gara ondoko jarduerok lehentasunez lantzen: garuneko kaltearen errehabilitazioa, berriro akutu egin diren patologia kronikoak edo estabilizatu eta susperraldira eraman nahi ditugun aldi azpi-akutuko palotogiak, zainketa aringarriak, traumatologiako errehabilitazioa, ospitalizazioa behar duten patologia. Azken urteotan arlo horiek guztiak garatzen gabiltza, eta urtero ekimen berriak bultzatzen ditugu ospitaleko plan estrategikoan aurreikusitakoaren arabera.

Talde-lanak errazten digu eguneroko eginbeharra.

Hori guztia lortzearen, aurrera egin behar dugu gure gizarte-erantzukizunean ere. Horretarako, ISO ingurumen-kalitatearen ziurtagiria eskuratu dugu, baita atentzio-prozesu orokorraren ISO agiria ere. Orobat, EFQM delako kanpoko kontrastea ere lortu dugu (European Foundation Quality Management).

Pertsonekin eta pertsonentzat lan egiteak bultzatzen gaitu hala egunero lanean nola beste zentro, enpresa eta erakundeekin ditugun harremanetan ere.

Carmen Rodríguez Rodríguez  
Zuzendari Gerentea

## Gorlizko Ospitalea. Misioa, ikuspegia eta balioak.

- MISIOA

Gorlizko Ospitaleak, Osakidetzakoa izanik, ospitalizazio-zerbitzuak eta zerbitzu ambulatorioak eskaintzen ditu. Erakunde honek mugikortasunean ondorio txarrak izan dituzten pertsonak atenditzen ditu, errehabilitazioz hobera egiteko moduan badaude, eta orobat, zainketen premia eta sintomak kontrolatu beharra duten gaixoak, haien kasuan lehentasunezkoa bada.

Ospitalizazioari dagokionez, Bizkaiko osasun-eremua da Ospitalearen jarduer-esparrua, eta tratamendu ambulatorioen kasuan, Uribe eta Barrualdeko eskualdeak.

Zerbitzuak ahalik eta kalitaterik handienaz ematea da gure jardueraren ezaugarria, eta horregatik eguneroko lanean sartzen dugu eraginkortasun klinikoa eta efizientzia hobetzeko balio duen guztia. Horrela, hona hemen gure jardueraren beste ezaugarri bat: erreferentziazko zerbitzuekin harreman errazak izatea eta beste erakunde batzuekiko lankidetzatza.

Gorlizko Ospitaleak eskueran dituen baliabideen arabera eskainiko ditu bere zerbitzuak, eta beharrezko oreka bilatuko du finantzetan.

- IKUSPEGIA

Gorlizko Ospitaleak hau izan gura du Bizkaiko osasun-eremuan:

Erreferentzia, errehabilitazioaren arloan, zainketa orokorretan eta zainketa aringarrietan, egonaldi ertaina eta luzea eskatzen duten prozesuetan.

Aitzindariak ospitalez kanpoko errehabilitazioan.

Hori guztia lortu nahi dugu partaidetza bultzatzen duen Erakundea izanik, bikaintasunarekin konprometitutako pertsonen bidez, aldaketa demografikoek eta erikortasunak egiten dizkiguten erronkei aurre egiteko gaitasuna izanik, Ospitaleak bere funtzioak betetzen dituen esparru sozialaren barruan.

- **BALIOAK**

Langileak dira Ospitalearen aktibo nagusia eta, beraz, asebetetzen eta motibatzen saiatuko gara, giza eta lanbide garapena sustatuta.

Erakundearen beste balio batzuk hauek dira:

- Langilea bezeroari begira jartzea.
- Lan profesionala emaitzetara begira jartzea.
- Efizientzia-, eraginkortasun- eta ekitate-irizpideak sartzea.
- Berrikuntzara eta etengabeko hobekuntzara begira egotea.

## ZERBITZUEN ESKAINTZA

|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
|---------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|----------------|-----------------------|----------|-------|----------------|
| BARNE MEDIKUNTZA-ZAINKETA ARINGARRIAK |                                                                           | Oheak                                               |                |                       |          |       |                |
| Ospitalizazioa                        | 54                                                                        |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| ERREHABILITAZIOA                      |                                                                           | Oheak                                               |                |                       |          |       |                |
| Ospitalizazioa                        | 95                                                                        |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| ERREHABILITAZIOKO KANPO-KONTSULTAK    |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| Ospitale barrukoak                    | Ospitalea                                                                 |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| Ospitalez kanpokoak                   | Uribeko Eskualdea                                                         | Algorta                                             |                | Barrualdeko Eskualdea | Basauri  | Ermua |                |
|                                       |                                                                           | Erandio                                             |                |                       | Galdakao |       |                |
|                                       |                                                                           | Derio                                               |                |                       | Durango  |       |                |
|                                       |                                                                           | Leioa                                               |                |                       | Gernika  |       |                |
|                                       |                                                                           | Mungia                                              |                |                       | Laudio   |       |                |
|                                       |                                                                           | Plentzia                                            |                |                       | Zornotza |       |                |
|                                       |                                                                           | Sopela                                              |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| ARLO TERAPEUTIKOA                     |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| Ospitale barrukoak                    | Erreahabilitazioa                                                         | Zinesiterapia                                       |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | Elektroterapia                                      |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | Termoterapia                                        |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | Talasoterapia (itsasoko urez girotutako igerilekua) |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | Terapia okupazionala                                |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | Logoterapia                                         |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | Bizkarreko eskola                                   |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | ACV eskola                                          |                |                       |          |       |                |
| Ospitalez kanpokoak                   | Orokorra                                                                  | Familia- eta laguntza-taldeak                       |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| Ospitalez kanpokoak                   | Uribeko Eskualdea                                                         | Algorta Bidezabal                                   |                | Barrualdeko Eskualdea | Basauri  |       |                |
|                                       |                                                                           | Algorta Alango                                      |                |                       | Lekeitio |       |                |
|                                       |                                                                           | Erandio                                             | Zinesiterapia  |                       | Galdakao |       | Zinesiterapia  |
|                                       |                                                                           | Derio                                               | Elektroterapia |                       | Durango  |       | Elektroterapia |
|                                       |                                                                           | Leioa                                               | Termoterapia   |                       | Gernika  |       | Termoterapia   |
|                                       |                                                                           | Mungia                                              |                |                       | Laudio   |       |                |
|                                       |                                                                           | Plentzia                                            |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           | Sopela                                              |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| LAGUNTZA ZERBITZUAK                   |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |
| Erradiologia                          | Ospitalearen estaldura erradiologikoa                                     |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       | Estaldura erradiologikoa ondoko herrietako lehen mailako atentzioarentzat |                                                     |                |                       |          |       |                |
|                                       |                                                                           |                                                     |                |                       |          |       |                |

| <b>PROZESU ASISTENTZIALA</b>            |                |                     |                         | <b>2.010</b>          |
|-----------------------------------------|----------------|---------------------|-------------------------|-----------------------|
| OSPITALIZAZIOA                          | OHEAK          | INGRESUAK           | BATEZBESTEK O EGONALDIA | OKUPAZIOA INDIZEA     |
| <b>Ospitalekoak guztira</b>             | <b>149</b>     | <b>2.115</b>        | <b>21,67</b>            | <b>90,05</b>          |
| Barne Medikuntza / Zainketa aringarriak | 54             | 933                 | 17,12                   | 81,88                 |
| Errehabilitazioa                        | 95             | 1.182               | 25,25                   | 95,90                 |
| KONTSULTAK                              | 1. KONTSULTAK  | HURRENGO KONTSULTAK | GUZTIRA                 | 1./HURRENG. INDIZEA   |
| Ospitalekoak                            | 182            | 2.392               | 2.574                   | 13,14                 |
| <b>Ospitalez kanpokoak</b>              | <b>18.692</b>  | <b>15.396</b>       | <b>34.088</b>           | <b>0,82</b>           |
| Uribeko eskualdea                       | 7.774          | 5.116               | 12.890                  | 0,66                  |
| Barrualdeko eskualdea                   | 9.938          | 9.127               | 19.065                  | 0,92                  |
| Mendebaldeko Gipuzkoako eskualdea       | 980            | 1.153               | 2.133                   | 1,18                  |
| ERREHABILITAZIOKO UNITATEAK             | PRESTAZIOAK    | ASISTENTZIAK        | PAZIENTEAK              | PAZIASIS BATEZBESTEK. |
| <b>Ospitalekoak guztira</b>             | <b>155.047</b> | <b>61.519</b>       | <b>2.455</b>            | <b>25</b>             |
| Ingresatuak                             | 64.688         | 25.708              | 1.277                   | 20                    |
| Kanpokoak                               | 90.359         | 35.811              | 1.178                   | 30                    |
| <b>Ospitalez kanpokoak guztira</b>      | <b>609.869</b> | <b>201.405</b>      | <b>9.123</b>            | <b>22</b>             |
| Uribeko eskualdea                       | 188.626        | 76.244              | 3.621                   | 21                    |
| Barrualdeko eskualdea                   | 421.243        | 125.161             | 5.502                   | 23                    |



## GURE BEZEROEN ARABERAKO EMAITZAK

### GOGOBEKETASUNA NEURTZEKO INKESTAK

**2010**

#### TRATUAREN ARLOA

|                                                          |          |      |
|----------------------------------------------------------|----------|------|
| Medikuen adeitasuna eta errespetua                       | % B+OO+O | 91,1 |
| Erizainen adeitasuna eta errespetua                      | % B+OO+O | 81,0 |
| Osasun-langileen laguntzeko gaitasuna                    | % B+OO+O | 84,6 |
| Langileen diskrezioaren gaineko balorazio positiboa      |          | 97,2 |
| Zure intimitatearekiko errespetuaren balorazio positiboa |          | 93,4 |

(B bikaina, OO oso ona, O ona)


#### INFORMAZIOAREN ARLOA

|                                  |          |      |
|----------------------------------|----------|------|
| Medikuek emandako informazioa    | % B+OO+O | 88,5 |
| Erizaintzak emandako informazioa | % B+OO+O | 77,1 |

(B bikaina, OO oso ona, O ona)

#### MINAREN ARLOA

|                                             |                      |      |
|---------------------------------------------|----------------------|------|
| Mediku eta erizainen minaren gaineko ardura | bai beti eta ia beti | 91,6 |
| Mina arintzea                               | guztiz eta nahikoa   | 93,5 |



## GIZA BALIABIDEAK 2010

| GUZTIRA                      | 329 |
|------------------------------|-----|
| Zuzendariak                  | 5   |
| Fakultatiboak                | 24  |
| Gainbegiraleak               | 8   |
| Erizainak                    | 60  |
| Laguntzaileak                | 99  |
| Fisioterapeutak              | 39  |
| Terapeutak                   | 2   |
| Logopeda                     | 1   |
| Teknikari espezialistak      | 1   |
| Gizarte-laguntzailea         | 1   |
| Informatikaria               | 1   |
| Goi-mailako teknikariak      | 5   |
| Administrazioko langileak    | 20  |
| Mantentze-lanetako langileak | 6   |
| Zeladoreak                   | 20  |
| Ostalaritzakoak              | 37  |

### Langileengatiko gastuak

|                               |                   |
|-------------------------------|-------------------|
| Langile finkoak               | 9.353.110         |
| Ordezkoak eta aldi baterakoak | 4.020.678         |
| Aldagaiak                     | 1.012.372         |
| Gizarte-segurantzak           | 4.044.951         |
| Beste batzuk                  | 350.525           |
| <b>GUZTIRA</b>                | <b>18.781.636</b> |

### Ezint. iragankorratiko absentismoa

|                            |             |
|----------------------------|-------------|
| Lizentziadun sanitarioak   | 1,96        |
| Teknikari sanitarioak      | 6,64        |
| Laguntzaile sanitarioak    | 9,49        |
| Administrazioko langileak  | 9,89        |
| Eskulan eta ogibideetakoak | 12,46       |
| Prestakuntza gabeak        | 9,86        |
| <b>GUZTIRA</b>             | <b>8,45</b> |

Garbilekuko, lorezaintzako, segurtasuneko eta sukalde-kudeaketako zerbitzuak azpikontratatuta daude




## DATU EKONOMIKOAK

| GASTUAK                                     | 2010              | DIRU-SARRERAK                                     | 2010              |
|---------------------------------------------|-------------------|---------------------------------------------------|-------------------|
| Farmaziako produktuen kontsumoa             | 386.499           | Zerbitzuengatiko diru-sarrerak Programa kontratua | 21.429.447        |
| Kontsumoko material sanitarioaren kontsumoa | 235.011           | Fakturatzeko dauden diru-sarrerak                 | 318.772           |
| Beste hornikuntza batzuen kontsumoa         | 139.555           | Negozio-kopuruaren zenbateko garbia               | <b>21.748.219</b> |
| Hornikuntzen erregularizazioa               | -276              |                                                   |                   |
| Kanpoko beste gastu batzuk                  | 981.623           |                                                   |                   |
| Hornikuntzak guztira                        | <b>1.742.412</b>  |                                                   |                   |
|                                             |                   |                                                   |                   |
| Soldatak, ordainsariak, antzekoak           | 14.386.251        |                                                   |                   |
| Gizarte kargak                              | 4.395.385         |                                                   |                   |
| Langileengatiko gastuak guztira             | <b>18.781.636</b> |                                                   |                   |
|                                             |                   |                                                   |                   |
|                                             |                   | Trafiko-horniduren aldageta guztira               | <b>2.055</b>      |
| Beste ustiapen-gastu batzuk                 | <b>964.469</b>    | Beste ustiapen-gastu batzuk                       | <b>21.609</b>     |
|                                             |                   |                                                   |                   |
| Ustiapen-gastuak guztira                    | <b>21.488.517</b> | Ustiapen-gastuak guztira                          | <b>21.771.883</b> |
|                                             |                   |                                                   |                   |
| Finantza-gastuak guztira                    |                   | Finantza-gastuak guztira                          | 21.386            |
|                                             |                   |                                                   |                   |
| <b>GASTUAK GUZTIRA</b>                      | <b>21.488.517</b> | <b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>                      | <b>21.793.269</b> |
|                                             |                   |                                                   |                   |
| <b>EKITALDIKO EMAITZA</b>                   |                   |                                                   | <b>304.753</b>    |



## 2010EKO KOSTUEN ANALISIA

| OSPITALIZAZIOA €                          |                   | ARLO TERAPEUTIKOA €                          |                   |
|-------------------------------------------|-------------------|----------------------------------------------|-------------------|
| <b>Zerbitzuen kostua</b>                  | <b>17.313.933</b> | <b>Ospitalea</b>                             | <b>1.424.335</b>  |
| Barne Medikuntza eta aringarriak          | 5.705.996         | Paziente kostua                              | 1.335,00          |
| Errehabilitazioa                          | 11.607.937        | Anbulatorioengatiko kostu asistentziala      | 40,00             |
| <b>Altengatiko kostua</b>                 | <b>8.202</b>      | Anbulatorioengatiko prestazio-kostua         | 16,00             |
| Barne Medikuntza eta zainketa aringarriak | 6.551             | <b>Uribeko eskualdea</b>                     | <b>756.703</b>    |
| Errehabilitazioa                          | 9.361             | Pazienteagatiko kostua                       | 209,00            |
| <b>Egonaldiagatiko kostua</b>             | <b>378</b>        | Asistentziagatiko kostua                     | 10,00             |
| Barne Medikuntza eta zainketa aringarriak | 357               | Prestazioen kostua                           | 4,00              |
| Errehabilitazioa                          | 389               | <b>Barrualdeko eskualdea</b>                 | <b>1.173.491</b>  |
|                                           |                   | Pazienteagatiko kostua                       | 213,00            |
|                                           |                   | Asistentziagatiko kostua                     | 9,00              |
|                                           |                   | Prestazioen kostua                           | 3,00              |
| <b>KANPO-KONTSULTAK €</b>                 |                   | <b>URIBEKO ESKUALDEAREN LAGUNTZA</b>         |                   |
| <b>Ospitalea</b>                          | <b>279.703</b>    | <b>Urgentziak, X Izpiak, odol-ateratzeak</b> | <b>79.536</b>     |
| 1. Kontsultagatiko kostua                 | 203,00            |                                              |                   |
| Hurrengo kontsultagatiko kostua           | 101,00            | <b>BESTE BATZUK</b>                          |                   |
| <b>Uribeko eskualdea</b>                  | <b>189.388</b>    | <b>Egotzi ezinezkoak eta beste batzuk</b>    | <b>741</b>        |
| 1. Kontsultagatiko kostua                 | 18,00             |                                              |                   |
| Hurrengo kontsultagatiko kostua           | 9,00              |                                              |                   |
| <b>Barrualdeko eskualdea</b>              | <b>237.097</b>    |                                              |                   |
| 1. Kontsultagatiko kostua                 | 16,00             |                                              |                   |
| Hurrengo kontsultagatiko kostua           | 8,00              |                                              |                   |
| <b>Gipuzkoako Mendebaldeko eskualdea</b>  | <b>33.590</b>     |                                              |                   |
| 1. Kontsultagatiko kostua                 | 22,00             |                                              |                   |
| Hurrengo kontsultagatiko kostua           | 11,00             |                                              |                   |
|                                           |                   | <b>GUZTIRA</b>                               | <b>21.488.517</b> |



| <b>INBERTSIOAK</b>   |                     |                                                                                | <b>€</b>         |
|----------------------|---------------------|--------------------------------------------------------------------------------|------------------|
| <b>OS57 GUZTIRA</b>  |                     |                                                                                | <b>1.059.760</b> |
| <b>Estrategikoak</b> |                     |                                                                                | <b>856.689</b>   |
|                      | <b>Obrak</b>        | UTR berritzeko proiektua                                                       | <b>6.689</b>     |
|                      |                     | Saneamendu-sarearen erreforma orokorra bukaera                                 | <b>850.000</b>   |
| <b>Gureak</b>        |                     |                                                                                | <b>180.000</b>   |
|                      | <b>Ekipamenduak</b> | Errehabilitazioko zerbitzu, ospitalizazioko unitatea eta sukaldeko ekipamendua | <b>138.087</b>   |
|                      | <b>Tresneria</b>    | Ospitalizazioko unitateak eta beste batzuk                                     | <b>2.263</b>     |
|                      | <b>Instalazioak</b> | Ura ateratzeko ponpa berritzea eta instalatzea                                 | <b>807</b>       |
|                      | <b>Altzariak</b>    | Altzari kliniko eta ez-klinikoak. 1.aren eskumako biltegia                     | <b>38.244</b>    |
|                      |                     | Ekipamendu Informatikakoa                                                      | <b>599</b>       |
|                      | <b>Informatika</b>  | Ekipamendu Informatikakoa                                                      | <b>23.071</b>    |





Argazki guztiak ospitaleko Aisia Batzordeak utzitakoak dira, eta 2011ko maiatzean egin zen argazki digitalen lehenengo lehiaketan aurkeztu ziren.

---

Urezarantza Ibiltokia, N° 1    48630 Gorliz - BIZKAIA  
Tfno: 944 006 600    Fax: 944 006 627